



## **LEHEN HEZKUNTZAKO 1. zikloa: IPUIN SARITUA**

### **MINGAINIK GABEKO JIRAFA. Maialen Muro Perez**

Behin batean bi jirafa sabanan bizi ziren eta kume bat jaio zen. Kumeak ez zeukan mingainik eta ez zekien nola jan. Eskolan beste jirafek barre egiten zuten baina jirafa eme bat hurbildu zitzaion eta esan zion berak ere ez zeukala mingainik.

Egun batean esan zion emeak: —Etorri hona— eta kobazulo batera joan zen. Mingain asko zeuden eta luzeena hartu zuen, metro bat neurtzen zuena. Neskak esan zion hortik joan behar zirela tranpak zeudelako. Beldurra zuten baina muxu bat eman zioten elkarri eta lasaitu ziren.

Azkenean joan zen eskolara eta ez zuten barre egiten. Denek ikusi zuten mingaina eta lehiaketa bat egin zuten: sagar bat hartu behar zuten zuhaitzaren puntatik. Emeak eta jirafak irabazi zuten, metro bateko mingaina zutelako.

